

ENPLEGUA SORTZEAGATIKO KENKARIA

2013

SOZietateen GAINeko ZERGAREN FORU ARAUA

45. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.

1 Zergaldian zehar behin betiko kontratatua egiten zaion pertsona bakoitzeko 4.900 euro kendu ahal izango da kuota likidotik.

Kopuru horri 4.300 euro gehituko zaizkio kontratatzen den pertsona, arauz ezarritakoaren arabera, laneratzeko zailtasun bereziak dituztenetakoa bada.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldiaren araberakoa izango da, lanaldi osoari dagokionez.

2. Aurreko idatz zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko beharrezkoa izango da behin betiko lan kontratua dutenen plantillako batez besteko kopurua aurreko azken zergaldikoaren aldean gehitzea, eta kenkarirako eskubidea sortzen den zergaldiaren amaiera egunaren hurrengo bi urteetako bakoitzean mantentzea, arauz bidez ezartzen denarekin bat etorritz.

Batez besteko langile kopurua kalkulatzeko, lanaldi partzialean eta urte naturala baino laburragoko aldietarako kontrataturiko langileak, benetan egindako lan orduen kopuruaren proportzioan konputatuko dira.

Idatz zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez gertatuzat joko dira Langileen Estatutuetako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetzen diren enplegu erregulazioko espedienteen bitartez onartzen diren lan harremanen etendurak eta lanaldien murrizketak (Langileen Estatutuetako 47. artikuluan araututakoak).

3. Sozietate berriak sortzeko sozietate eta banakako enpresen bat egite, banantze eta eraldatze eragiketak gauzatzeak ez du ekarriko, berez, artikulua honetan jasotzen den kenkariaren aplikaziorik.

4. Foru Arau honen 16. artikuluko 3. atalean jasotako kasuetan, kenkari honen aplikazioak kontuan izan beharko du lotutako erakundearen egoera bateratua.

Oharra: agiri hau ez da ofiziala eta jakinaraztea baino ez du helburu.

SOZIJATEEN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIA

32. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.

1. Enplegua sortzeagatiko kenkaria, Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluan arautu dena, bertan aipatutako ekitaldian formalizatzen den lan kontratu mugagabe bakoitzeko aplikatuko da.

Hala ere, kenkarirako eskubidea edukitzeko ezinbestekoa izango da lan kontratua formalizatzeko berekin ekartzea lan kontratu mugagabedun langileen batez besteko kopurua gehitzea, aurreko ekitaldiko batez bestekoarekin alderatuta.

Horretarako, plantillan lan kontratu mugagabea dutenen batez besteko kopuruan aurreko azken ekitaldikoarekin alderatuta gertatzen den gehikuntza kenkari eskubidea eragiten duten pertsona kontratatuen ondoriozko plantilla gehikuntza izan behar da gutxienez.

Kenkari eskubidea ematen duen pertsona kontratatu batek plantillan eragiten duen lan kontratu mugagabedunen batez bestekoaren gehikuntzak zergaldi bat baino luzeago irauten badu, aurreko paragrafoan ezarritakoa gehikuntza sendotzen den zergaldietan bete behar da.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik gehitu ondoren, plantillan lan kontratu mugagabea dutenen batez besteko kopurua kenkari eskubidea sortzen den zergaldiaren ondoko bi urteetan mantendu behar da.

Idatz zati honetan xedatutakoa betetzen ez bada, hori gertatzen den zergaldiko kuotari zergapekoak lortu ez den plantilla gehikuntzaren zatia erproportziozko kenkari zatia gehitu behar dio, bai eta horren berandutze korritu egokiak ere.

2. Kenkari eskubidea ematen duen kontratua formalizatu den zergaldiaren ondoko bi urteetan hasten diren zergaldietan zergapekoak kenkari eskubidea edukitzeko betekizunak betetzen dituen beste lan kontratu bat egiten badu eta aurreko ekitaldi batean sortutako kenkaria aplikatzeko eskubidea finkatzeko beharrezkoa bada, kontratu berriak ez du kenkarirako eskubiderik sortuko finkapenerako behar den zatia dagokionez.

3. Zergari buruzko foru arauaren 45. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan adierazitako enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzen direnean aplikatuko da, baldintza honekin: kontratuak lan kontratu mugagabea duten langileen batez bestekoa gehitu behar du zergapekoaren plantillan, bai eta lan kontratu mugagabedunen artean lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako pertsonen batez bestekoa ere. Honelako kasuetan aurreko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritako arauak aplikatuko dira.

4. Enplegua sortzeagatiko kenkaria aurreko idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik gehituta aplikatzen denean, artikulua honetako aurreko idatz zatietan iraupenaz ezarritako betekizunak ondokoei aplikatuko zaizkie: lan kontratu mugagabea duten langileen guztirako gehikuntzari eta kenkari gehitua aplikatzeko eskubidea ematen duen kolektiboko lan kontratu mugagabedunen gehikuntzari.

Kolektibo horretako langileen gehikuntza ez bada mantentzen eta guztirako gehikuntza, aldiz, bai, bidezko erregularizazioa egingo da.

5. Hauexek izango dira lan merkatuan sartzeko eragozpen bereziak dituzten kolektiboak (Zergari buruzko Foru Arauko 45. Artikuluko 1. idatz zatian aipatzen direnak): Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek onartzen duten arautegian ezartzen direnak.

6. Zergari Foru Arauko 45. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko ezarri diren betekizunak bete ezean, hori gertatu den zergaldiaren autolikidazioan zergapekoak kenkariaren ondoriozko kuota sartu behar du, bai eta berandutze korrituak ere.

Oharra: agiri hau ez da ofiziala eta jakinaraztea baino ez du helburu.

LAN-MERKATUAN SARTZEKO ZAILTASUN HANDIENAK DITUZTEN GIZA TALDEAK.

329/2003 DEKRETUA, ABENDUAREN 23KOA, LANERAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA.

(255 EHAA - 2003ko abenduak 31, asteazkena)

6. artikulua.– Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten giza taldeak.

1. Kapitulu honetan araututako diru-laguntzen kontratazioaren xede diren giza taldeak ondokoak dira:
 - a) Gutxienez hiru hilabeteko antzintasunarekin langabetu gisa inskribatuta dauden 45 urtetik gorako pertsonak.
 - b) Gutxienez 5 eta gehienez 12 hilabeteko antzintasunarekin langabetu gisa inskribatuta dauden 30 urtetik beherako gazteak.
 - c) Gutxienez %33ko minusbaliotasun fisiko, psikiko edo sentsozial bat duten pertsonak.
 - d) Txosten mediko bidez egiaztatutako gaixotasun mental bat duten pertsonak.
 - e) Iraupen luzeko langabetuak, hots, gutxienez hamabi hilabeteko antzintasunarekin langabetu gisa inskribatuta dauden pertsonak.
 - f) Guraso bakarreko familia bateko aita edo ama, betiere langabetu gisa gutxienez hiru hilabeteko antzintasunarekin inskribatuta badaude. Ondorio horietarako, egoera horretan ordaindutako jarduerarik egiten ez duten ondorengoak beren kargura dituen pertsona dagoela ulertuko da.
 - g) Terrorismo-ekintzen biktimak izan diren pertsonak, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen irailaren 24ko 214/2002 Dekretuaren III. Kapituluak pertsona horien kontratazioa sustatzeko ezarritako baldintzetan, eta terrorismo-ekintza baten biktima baten seme-alabak eta ezkontidea, biktima hiltzen denean edo ordaindutako jarduera batean aritzea eragozten dion baliaezintasun-egoeran geratzen denean.
 - h) Etxeko indarkeriaren biktimak izan diren pertsonak.
Pertsona hauek edo beren seme-alabek ezkontideases ren edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez era egonkorrean lotuta dagoen edo egon zen bikotekidearen indarkeria fisikoa edo psikikoa jasaten dutenean ulertuko da pertsona horiek adierazitako egoeran daudela, betiere gertaera horiek dagokien polizia-erakundearen edo erakunde judizialaren aurrean salatu badira.

- i) Abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuan araututako gizarteratze-enpresa batean gizarteratze eta laneratze prozesua amaitu duten pertsonak, betiere kontratazioa adierazitako prozesua amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan egiten bada. Kontratazioa gizarteratze eta laneratze prozesua amaitu eta berehala egiten bada, ez da exijituko langabetu gisa inskribatuta egotea.
 - j) Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera (egungo Oinarrizko Errenta) arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea garatzen duen Gizarte Larrialdietako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan ezarritako laguntzen onuradunak.
 - k) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogen mendeko ohiak). Dekretu honetan aurreikusitako laguntzen ondorioetarako, dagokion talde terapeutikoaren iritziz desintoxikatzeko eta ohitura kentzeko faseak gainditu ondoren eta 6 hilabetetik gorako aldi batean tratamendu jarraitua jaso ondoren lanaren bitartez gizarteratzeko programa bati atxikitzeko moduan dauden pertsonak hartuko dira toxikomano ohizat.
 - l) Espetxe batean preso dauden, ezein lan-kontraturik ez duten eta espetxe-erregimenari jarraiki lanpostu bat eskura dezaketen pertsonak eta preso ohiak, betiere kontratazioa askatasuna lortu eta hurrengo 12 hilabeteetan egiten bada. Espetxeetan preso dauden pertsonen kasuan, ez da exijituko langabetu gisa inskribatuta egotea.
2. Langabeziako antzintasuna kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko gizarteratze-enpresetan edo Eusko Jaurlaritzak sustatutako Enplegu/Prestakuntza Programen babesean lanean emandako denbora.

Oharra: agiri hau ez da ofiziala eta jakinaraztea baino ez du helburu.